

Egunerokoa

Tutoretzan eskatu digute autobiografia-liburuen zerrenda batetik liburu bat aukeratu eta irakurtzeko. Nik asko gustatzen zaidan aktore baten autobiografia aukeratu dut, telebistan asko azaltzen den batena.

Egia esan, bizitzan gauzak ondo atera zaizkio, filme askotan lan egin du, dirua du eta neskalagun politak izan ditu, horegaitik pentsaezina egiten zait institutuan hain gaizki tratatu zutenik. Askotan zaborrontzian sartzen zutela dio, eta barre egiten ziotela hitz egitean zuen doinuagatik eta zeukan ileagatik.

Liburua irakurtzen amaitzean eta Gorka etorri zitzaidan burura. Denok barre egiten diogun mutil bat da eta beti bakarrik egoten da. Noizean behin libururen bat gordetzen diogu eta berandu iristen da eskolara liburu bila ibili delako. Irakasleek ere erremediarik ez duela diote.


Nota onak ateratzen ditu, baina horretan ere barre egiten diogu. Egoera hau nola hasi zen gogoratzen saiatu naiz eta, nik uste, beti izan dela horrela, badira jada bederatzí urte hasi zenetik.


Egun hauetan arretaz begiratu diot eta ez dio inork hitz egiten. Jolas-orduan liburutegira joaten da zirika ez dezaten, jantokian txoko batean esertzen da eta bere munduan murgilduta egoten da. Tristura-aurpegia du eta ez du irribarre egiten. Kontua da hainbeste urtean jaramonik egin ez badioqu eta egin diogunean traba egiteko izan bada, oso gaizki pasatzen ariko dela.

Duela urte batzuk nahiko gaizki pasatu nuen ikaskide berri bat etorri zitzaigunean, ezizen bat jarri baitzidan eta denei barre eginarazten baitzien.

Gaur fisikan ulertzen ez nuen gauza bati buruzko galdera bat egitera hurbildu nartzazio, proba egiteko. Hasieran, uste dut belduertuta begiratu didala, baina pixka bat hitz egin ondoren, irribarre ere egin duela esango nuke. Eskerrak eman dizkiot.

Hemendik aurrera ondo tratatzen hasiko naiz.





Irakurtzearen garrantzia

Irakurtzea oso garrantzitsua da eta, gaur egun, beharrezkoa gure seme-alabak haurtzaroan eta nerabezaroan behar bezala garatzeko eta heldutasunera iristeko.

Irakurketak hezteko duen potentziala ikasketetan ondo ibiltzea baino harago doa. Kultura zabalitzen du, estetikaren zentzua garatzen du, nortasuna garatzen laguntzen du eta dibertsio eta entretenimendu iturri da. Gainera, ikasteko baliabide bat da; baita adimen kognitiboa eta emozionala garatzeko eta autoestimua hobetzeko baliabidea ere.

Haurrentzat eta nerabeentzat funtsezkoa da pentsamendu abstraktua, gogoetatsua eta kritikoa garatzeko.

Alde nabarmena dago irakurtzen duten ume, nerabe edo helduen artean eta irakurtzen ez dutenen artean.

Irakurtzearen abantailak

Azken hamarkadetan eskoletan eta familian liburuei eman zaien erabilerak bultzatuta irakurketa irakastearekin lotu bada ere, irakurtzearen abantailak hori baino askoz gehiago dira.

Irakurtzetik ateradaitezkeen onurak asko aldatzen dira pertsona bategatik bestera:

- Hizkuntza garatzen eta hobetzen laguntzen du eta ahozko zein idatzizko adierazpenetan jarioa hobetzen du. Gainera, hiztegia aberastu egiten da eta ortografia hobetu.
- Pertsonen arteko harremanak hobetzen ditu, aberastu egiten ditu eta komunikaziorako gizarte-trebetasunak garatzen ere laguntzen du.
- Pentsamenduak adierazten laguntzen du (iritziak, ideiak, kritikak, balorazioak...) eta pentsatzeko gaitasuna eman eta hobetu egiten du.
- Lan intelektualerako tresna bat da. Beraz, eskolan errendimendua hobea izatearekin ere lotuta dago.
- Informazioa eta jakintza ematen ditu. Irakurtzean ikasi egiten da.
- Aukerak zabaltzen ditu; denboran eta espazioan urruti egon litezkeen lekuekin, jendearekin eta ohiturekin harremanetan jartzen gaitu. Gureak ez bezalakoak diren istorioekin enpatia izateko aukera ematen digu. Ulertzeko gaitasuna areagotzen du eta horrekin batera, baita adimen emozionala ere.
- Jakin-min intelektuala eta zientifikoa piztu eta asetzen ditu.
- Zaletasunak eta interesak piztu, indartu eta aberastu egiten ditu.

- Entretengarria da eta dibertimendurako iturri ere bada, lasaitu eta dibertitu egiten du.
- Epaitzeko, aztertzeko eta pentsamendu kritikoa izateko gaitasuna garatzen du.
- Ahaleginak egiteko gaitasuna sustatzen du eta, ondorioz, frustraziorako gaitasuna ere bai, parte-hartze aktiboa izatea eta ahalegin pertsonala egitea eskatzen baititu.
- Behatzeko, arreta jartzeko eta kontzentratzeko gaitasuna handitzen du.
- Sormena garatzen laguntzen du. Horri esker, gatazkak konpontzeko, alternatibak bilatzeko eta erabakiak hartzeko baliabideak izaten dira.
- Balioak garatzen laguntzen du, betiere, liburuak behar bezala hautatzen badira. Irakurteak gurasoen eta beste pertsona heldu garrantzitsu batzuen ereduengandik ezberdinak diren ereduak proposatzen ditu, miresteko eta imitatzeko.
- Trebakuntza estetikoak sustatzen du eta sentiberatasuna lantzeko aukera ematen du, emozio artistikoak eta sentimenduak estimulatuz.
- Zaletasun gisa, bizitza osorako balio dezake eta edozein garaitan, tokitan, adinetan, egoeratan... egin daiteke.
- Norberaren pertzepzioa eta autoestimua hobetzen ditu, konfiantza handitu eta mundura irteko ateak zabaltzen ditu, gizarteratzea ahalbidetuz.

Laburtuta, gure seme-alabek irakurtzean ez dute informazioa bakarrik hartzen, hausnartu eta beraienak dituzten ideiak edo ikasi dituztenak aztertu ere egiten dituzte. Horrek laguntzen die pentsamendu propioa sortzen, subjektibotasun propioa sortzen.

Zergatik irakurtzen dute hain gutxi?

Galdera horren erantzunik bistakoen zera da, gure seme-alabek gutxi irakurtzen dutela, oro har, eskoletan eta familietan asko irakurtzea nahi dugulako.

Irakurketa lan intelektualerako tresna bat da. Beraz, eskolan errendimendu hobea izatearekin ere lotuta dago

Ondorioz, liburu jakin batzuk irakurtzera "derrigortzen" ditugu, batzuetan interesatzen ez zaizkien liburuak, eta horretan denbora luzean arituz gero, aspertu egiten dira eta irakurtzea "aisialdirako jarduera ez, egin beharrekoa" bihurtzen da.

Irakurtzera behartzearen erruz, liburuak gauza atsegin gisa ikusi beharrean, enbarazu gisa ikustera bultzatzen diegu.

Azkenik, beste ondorioetako bat da nerabezaroan ikasgaiak gainditzeko irakurri beharreko liburuak irakurtzen direla oro har eta ahaztu egiten zaigu ikasteko edo ondo pasatzeko irakurtzea.

Aipagarria da Gianni Rodarrik zioen: "Inoiz ez zaio inori liburu bat irakurtzeko agindu behar. Komenigarriena onenak iruditzen zaizkigun liburuak iradokitzea, erakustea eta aholkatzea da, gure seme-alabek eta ikasleek ondo pasa eta ikas dezaten".

Argudia daiteke, halaber, liburuak garestiak direla, baina liburategietako langileek baieztatzen duten errealitateak erakusten du liburategietara ere ez dela jende asko joaten liburuak mailegatzera. Jendea, batez ere gazte jendea, testu-liburuetatik edo apunteetatik ikastera joaten da liburategietara.

Oso ezaguna eta aztertua den beste faktore bat telebista aurrean kontsolarekin jolasean edo Interneteko sare sozialetan edo mezu-programetan ordu gehiegi igarotzearena da. Jarduera horiek ez dira kaltegarriak berez; alderantziz, behar bezala erabiliz gero, oso erabilgarriak





dira. Askotan, ordea, ia erabat ordezkatzen dute irakurketa eta, kasu horietan, gertutik zaindu eta aldi baterako mugatu beharreko jarduera bihurtzen dira.

Azken finean, ez dute irakurtzen, ez dutelako ondo pasatzen. Hori horrela, gure helburuak gazteei irakurtzea gustatzea izan behar du eta ez "irakur dezatela" soilik.

Familian irakurketa sustatzeko aholkuak

Bi gertaera ditugu abiapuntuan: lehena da irakurketa prozesu konplexua dela eta, bigarrena, gure gizarteak alfabetizazio unibertsala eta irakurtzeko gaitasuna gutxieneko helburu gisa finkatu dituela.

Beraz, arlo honetan familiei, ikastetxeei eta gure seme-alabei egiten zaizkien eskaerak aztertu eta erantzun bat eman beharko zaie.

Familiatik, irakurtzeko ohitura egoikia eta irakurzaletasuna izan dezaten saiatzeko, honako jarraibide hauek har daitezke kontuan:

- Irakurtzen ikasteko eta irakurtzera animatzeko prozesua pixkanaka eta modu atseginean egin behar da, giro onean eta, batez ere, betebeharrak bihurtu gabe. Irakurtzea ez da inoiz zigorra izango eta ez da derrigortzearen edo mehatxuen ondorio izango.
- Irakurgai interesgarriak eta erakargarriak erabili behar dira, seme-alaben adin, egoera eta ezaugarrietarako egokiak direnak.
- Irakurtzeko denbora haurrak/nerabeak finkatu behar du. Hobe da seme edo alaba *"gosez gertatzea, okitzea baino"*.
- Etxean seme-alabek irakurtzeko egokiak diren liburuak izan behar dira.
- Ohitura ona izaten da familiari eta lagunei eskatzea, gure seme-alabei egun berezietan opariak egin behar dizkietenean, liburuak oparitzeko.
- Ahalik eta lasterren eraman liburutegi publikoetara, doan irakurtzeko baliabide gisa erabiltzeko ohitura har dezaten. Gaur egun, badira haur hezkuntzako haurrei sartzen uzten dieten haurrentzako liburutegiak. Liburutegiek ere eskaintzen dituzte irakurzaletzeko jarduerak, haurrei irakurritz gozatzen irakasteko.
- Ikasteko moduetako bat imitazioa dela aintzat hartuta, gurasook ere irakurle eredugarri izan behar dugu. Ikus gaitzate irakurtzen; bai gozatzeko, bai eguneroko gauzetarako (egunkariak, Interneteko kontsultak, etab.).
- Ikastetxeak funtsezkoak dira irakurzaletasuna sustatzeko. Beraz, eta neurriak modu koordinatuan hartze aldera, interesgarri litzateke eskoletan eta institutuetan gure seme-alabak irakurtzera animatzeko zer eta nola egiten duten jakitea.
- Irakurgaia aukeratzen utzi behar diegu. Hobe da gustuko zerbait irakurtzea, ez irakurtzea baino.

- Elebidunak edo hirueledunak bada, hizkuntza guztietan irakurtzera animatuko ditugu.
- Oso garrantzitsua da irakurtzean bakarrik ez uztea, batez ere, ulertzeko zailtasunak dituztenean. Irakurritakoari buruz hitz egitea eta iritzia ematea ona suerta liteke motibatzen.

Saiatu ez etsitzen eta irakurtzera ez behartzen. Batzuetan, irakurtzen ikasten ari direnean, ez dute oraindik behar besteko heldutasunik izaten eta gehiago kostatzen zaie. Gainera, kontuan izan behar da, jolasean eta beste pertsona batzuekin dandean ere ikasten dutela.

Nerabezaroan, askotan, irakurtzea ez zaie interesatzen. Lagunei, egiten dituzten jardueri eta eskolako lanari jartzen diete arreta. Normala da.

Bestalde, normala da nerabezaroan irakurketa erabiltzen hastea munduari eta haien buruei buruz dituzten galdera garrantzitsuei erantzuten laguntzeko ere.

Ez da ahaztu behar ez dagoela pertsona guztientzako balio duen ir-

tenbiderik. Seme edo alaba bakoitzak bere interesak ditu eta zer eta zein unetan irakurriko duten aukeratzeko gustatzen zaie.

Ondorioz:

- Irakurtzeko ohitura dutenek autonomia kognitiboa dute; hau da, bizi osoan zehar beren kasa ikasteko prest daude. Baliagarria da hori seme-alabek irakurtzen ikasten dutenetik.

Irakurketak behatzeko, arreta jartzeko eta kontzentratzeko gaitasuna handitzen du

- Informazioa eskuratzeko irakurtzea: telefono-zenbaki bat bilatzea, filma zein zinema-aretoan eta zer ordutan emango duten jakiteko egunkaria kontsultatzea,

hiztegi edo entziklopedia bat kontsultatzea, Interneten kontsultak egitea zerbait jakiteko, bidaiatzeko, irakurtzeko eta abar irakurtzearen abantailak dira.

- Irakurtzean, buruak modu aktiboan hartzen du parte eta irudimena eta sormena garatzeaz gain, hiztegia eta ahozko zein idatzizko komunikazioa aberasten dira.
- Ikuspuntu psikologikotik, mundua hobeto ulertzen eta norbera hobeto ulertzen eta onartzen laguntzen du, pertsonen arteko harremanak errazten ditu eta garapen afektiboari eta moralari ere lagundu egiten dio eta, beraz, mundu birezkoago eta gizatiarrago bat eraikitzeko gaitasuna ematen du.

Irakurketa, azken finean, drogen gehiegikeriazko kontsumoa eta eskola-porrota prebenitzeko baliagarria da, autoestimua hobetzen laguntzen du eta ulermena eta enpatia lantzeari esker, adimen emozionala ere areagotu egiten du.

Irakurriz ikastea ...

“Fantasiaren gramatika”

Rodari, Gianni. Booket argitaletxea (7 € inguru)

Edozein hitz izan daiteke baliagarria fantasiarako istorio bat imajinatzeko, baldin eta bere ohiko testuingurutik atera eta hitz horren eta beste baten esanahia modu ezohikoan lotzen badira.

Gianni Rodariren esperientzietan oinarritutakoa da “Fantasiaren gramatika” eta oso erabilgarria da irakasleentzat eta gurasoentzat.

Hainbat teknika eta joko biltzen ditu liburuak, eta horien bidez, haurrek sormenerako duten gaitasuna

praktikan jartzen dute, adimena eta fantasia pizten baitzaizkie. Ez da behar gisa hartu behar, jolas gisa baizik, istorioak garatzen eta modu adimentsu eta naturalean kontatzen lagunduko dien dibertsio gisa.

Gianni Rodarik liburu honen bidez adierazten du oso garrantzitsua dela haurren ikaskuntza-prozesuan irudimena garatzea eta jolastan duten bitartean sortzen diren istorioetako protagonistak direla sentiaraztea lortzen da horrela.



Getxoko Gurasoen Eskola



Getxo
bizi ezazu

- Ikastaroen iraupena hiru, lau edo bost saiokoa da.
- Zehaztutako data lehen saioari dagokiona da.
- Eguna eta ordutegia berberak izango dira ikastaroak iraungo duen asteetan.
- Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea. Nahikoa da lehen egunean zehaztutako ikastetxera joatea.
- Edozein arrazoi dela eta, lehen egunean etorri ezingo bazenute, hurrengo saioetara etor zaitezke.
- Zuen seme-alabak ez badira ikastetxe horretakoak eta ez baduzu ezagutzen, joan zaitez atezaindegira edo Ikasleen Gurasoen Elkartera saioak non egingo dituzten esan diezazuten.
- Fadura BHIrako eta Julio C. Baroja BHIrako elkarrekin eskainiko ditugun jarduerak Fadura BHI n egingo ditugu.
- Jarduerak doakoak dira.
- Lehen egunean, gutxienez, hamabi lagun etorriko ez balira, bigarren egunean kopuru horretara iristen saiatuko ginateke. Horren ondoren, gutxieneko partaide kopurura iritsiko ez bagina, ikastaroa bertan behera geratuko litzateke. Eskualde baitan zer beste aukera duzuen jakinaraziko dizuegu. Garrantzitsua da lehen egunean etortzea.
- **Informazio gehiago behar izanez gero, deitu telefono-zenbaki honetara: 94 466 01 51.**



IKASTAROEN EGUTEGIA: URTARRILA - MAIATZA 2012

IKASTETXEA		HASTEKO EGUNA	ORDUA
Azkorri	Nerabetasunerako presta zaitez	Urtarrilak 16 asteazkena	19:00
Zubiletas IP	Nerabetasunerako presta zaitez	Urtarrilak 17 asteartea	14:30
Divina Pastora	Gurasoentzako psikologia ikastaroa	Urtarrilak 18 asteazkena	15:30
Aixerrota BHI	Drogen probentzia	Urtarrilak 19 osteguna	19:00
Romo IP	Estresa nola bideratu eta emozioen kontrola	Otsailak 23 osteguna	9:00
Fadura BHI / Julio C. Baroja BHI*	Nerabeekiko komunikazioa hobetu ezazu	Martxoak 5 astelehena	18:00
Artaza BHI	Estresa nola bideratu eta emozioen kontrola	Martxoak 6 asteartea	19:00
Larrañazubi	Familiako gatazken ebazpena	Martxoak 28 asteazkena	9:00
Zubiletas IP	Estresa nola bideratu eta emozioen kontrola	Martxoak 29 osteguna	14:30
Europa	Adimen emozionalaren heziketa	Apirilak 23 astelehena	18:00
Trinitarias	Sexualitatearen inguruan	Apirilak 24 asteartea	19:00
Geroa IP	Sexualitatearen inguruan	Maiatzak 17 osteguna	9:00

* Ikastaro hau IES Faturan ospatuko da.

Informazio gehiago nahi baduzu,
telefono zenbaki honetara dei dezakezu.

94 466 01 51